

# ANIMAZIO SOZIOKULTURALEKO TEKNIKARIAREN (ASOKT) LANPOSTUAREN PROFILA

## **Eskakizunak**

---

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- Animazio Soziokulturaleko LHko Goi Gradua
- Adinekoen eta desgaituen egoitzetan eta eguneko zentroetan, aisialdiko zein astialdiko programa bateratuetan, elkarteetan... izandako esperientzia balioetsiko da

## **Azalpena**

---

Babesten Taldean, ANIMAZIO SOZIOKULTURALEKO TEKNIKARI bila gabiltza, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, psikologoaren menpean:

- Erabiltzaileei adorea ematea eta erabiltzaileak harremanetan jartzea, erabiltzaileen eta haien senideen partaidetza soziokulturala sustatzen duten metodoen eta jarduketa-programen bidez. Horretarako, egoitzan eta eguneko zentroan dinamizazio soziala sustatzea, diziplinarako lan-esparruaren barruan.

**Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:**

### Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Zentroko animazio soziokulturalerako urteko plana egitea eta, horretarako, aisialdiko zein astialdiko jarduerak diseinatzea eta sustatzea.
- Euren astialdiaren okupazioan erabiltzaileak inplikatzeko dituzten banakako edota taldekako zenbait animazio-teknika garatzea eta betearaztea, haien integrazioa eta taldeko garapena sustatzeko asmoz.
- Gizarte-langilearekin batera, ingurune erkidearen eta zentroaren arteko lankidetzaren suspertzea eta dinamizatzea (belaunaldi-trukea, hitzaldiak...), baita erabiltzaileekin ingurunearekin duten harremana ere, zahartzaroaren irudi positiboa bultzatzeko asmoz.
- Jardueretako partaidetzari eta jarraipenari buruzko datuak erregistratzea eta sartzeara.
- Diziplina anitzeko taldearen bileretan parte hartzea.
- BAPren prestaketan parte hartzea.
- Lan-taldeak eta animazio soziokulturalerako aurrekontua koordinatzea.

- Zentroak eta erabiltzaileek erkidego hurbilenarekin duten harremanari eustea eta sustatzea.
- Diziplina anitzeko taldearen bileretan parte hartzea.
- Oro har, aurretiaz zehaztu ez diren arren agintzen dizkieten jarduera guztiak egitea, euren titulazioaren eta lanbidearen arabera.

#### Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Erabiltzaileen garapen integrala bultzatzea, ekintza ludiko eta hezigarriaren bidez.
- Euren astialdiaren okupazioan egoiliarrek inplikatzeko dituzten banakako edota taldekako zenbait animazio-teknika garatzea eta betearaztea, haien integrazioa eta taldeko garapena sustatzeko asmoz. Era berean, familiak ere inplikatzeko bertan.
- Euren gurari araberako bizimodu ahalik eta normalizatuena eduki dezaten, erabiltzaileei behar besteko baliabideak eskaintzea eta honako arlo hauetan dituzten premiei erantzuna ematea: ikaskuntza, harremanak, jolasa, aisialdia, astialdia...
- Egoiliarren autonomia pertsonal zein soziala suspertzea, haien ahalmen pertsonalen narriadura prebenitzeko edota atzeratzeko.
- Zentroko egoiliarren arteko elkarbizitza eta harremanak sustatzea.
- Erabiltzaileek euren berezko ingurune familiar eta sozialean integratuta eta inplikaturik jarraitzea.
- Bizimodu erkide eta sozialeko ekintzetan parte hartzea, bertara doazenak gizarteratzeko edo haien arazoak konpontzeko.
- Zentroko jarduera soziokulturalen programazioa prestatzea.
- Borondatezko lanerako programak koordinatzea.
- Aisialdiko eta astialdiko jarduerak garatzea, erabiltzaileak jolastu daitezten.
- Egoiliarren integrazioa eta partaidetza bultzatzea.
- Egoiliarrei behar besteko motibazioa ematea, integrazioa eta taldeko garapena lortzeko orduan haien partaidetza garrantzitsua dela konturatu daitezten.

#### Zentroko langileei dagokienez:

- Diziplinarteko taldearekin lan egitea. Horretarako, taldearen zerbitzu espezializatuen osagarri, aisialdiko eta astialdiko zereginak garatzea, kasuan kasuko zerbitzuak emateko.

#### Eskaintzen duguna

---

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundean (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi Linkedinen).
- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.

- **Bizkaian ditugun zentroetan (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo, Abanto-Zierbena...).**

**Gurekin lan egin nahi baduzu:**

**Bidali Zure CVa**